# Xedapen Orokorrak

## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

### Zk-3073

AGINDUA, 2001eko maiatzaren 29koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena. Honen bidez, abenduaren 26ko 300/2000 Dekretua garatzen da, hain zuzen, krisialdiak jotako enpresak berregituratu eta bultzatzeko dirulaguntzak ezartzen dituena.

Abenduaren 26ko 300/2000 Dekretuak krisialdiak jotako enpresak berregituratu eta bultzatzeko laguntzak ezartzen ditu, horiek tinkotu eta lehiakortasuna errazteko.

Dirulaguntza horiek Europar Batasuneko artezpideen barruan daude, hain zuzen, krisialdiak jotako enpresen salbamendu eta berregituraketarako; hortaz, aipatutako artezpideen aplikazio eremuan sartutako arloei aplikatzen zaizkie. Hala ere, badira zenbait arlotarako berariazko arauak.

Europako Batzordeak beharrezko jotzen du aipatutako artezpideen esparruan onartzen diren arauetan zehaztea dirulaguntzen esparrutik kanpo geratzen diren arloak, bai eta berariazko arauak dituztenak ere. Ondorioz, bidezko da aipatutako dekretuan xedatutakoa garatzea, sail honen aginpidetza arloei atxikiz.

Ondorioz, abenduaren 26ko 300/2000 Dekretuaren azken xedapenak ematen dizkidan ahalmenen indarrez, honako hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Esparrutik kanpo geratzen diren jarduera eta arloak.

Abenduaren 26ko 300/2000 Dekretuan jasotako dirulaguntzen esparrutik kanpo geratzen dira Europar Batasunaren Tratatuaren I. eranskinean jasotako produktuekin zerikusia duten jarduerak eta CECA tratatuko arloak.

*2. artikulua.–* Arloko berariazko arauak.

Abenduaren 26ko 300/2000 Dekretuan jasotako dirulaguntzek bete egin beharko dituzte Europa mailan zuntz sintetiko, itsasontzi eraikuntza, motordun ibilgailu eta garraio ibilgailuen arloetan dauden berariazko arauak.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

### N°-3073

ORDEN de 29 de mayo de 2001, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se desarrolla el Decreto 300/2000, de 26 de diciembre, por el que se establecen Ayudas destinadas a la Reestructuración y Relanzamiento de Empresas en crisis.

El Decreto 300/2000, de 26 de diciembre, regula las ayudas destinadas a la reestructuración y relanzamiento de empresas en crisis tendentes a favorecer la consolidación y competitividad de las mismas.

Dichas ayudas se enmarcan en las directrices comunitarias sobre ayudas destinadas al salvamento y reestructuración de empresas en crisis por lo que se aplican a los sectores incluidos en el ámbito de aplicación de las referidas directrices, sin perjuicio de las normas específicas existentes para determinados sectores.

La Comisión Europea considera preciso especificar en las normas que se aprueben en el marco de las mencionadas directrices los sectores que quedan excluidos de las ayudas así como los sectores que cuentan con normas específicas por lo que procede desarrollar lo dispuesto en el citado Decreto, teniendo en cuenta las áreas competencia de este Departamento.

Por lo expuesto, en virtud de las facultades conferidas en la Disposición Final del Decreto 300/2000, de 26 de diciembre,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Actividades y Sectores excluidos.

Las actividades relacionadas con los productos del Anexo I del Tratado de la Comunidad Europea y los sectores del Tratado CECA quedan excluidos de las ayudas previstas en el Decreto 300/2000, de 26 de diciembre.

*Artículo 2.–* Normas sectoriales específicas.

Las ayudas reguladas en el Decreto 300/2000, de 26 de diciembre, estarán sometidas a las normas comunitarias específicas existentes en los sectores referidos a fibras sintéticas, construcción naval, vehículos de motor y de transporte.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera izango du indarra agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko maiatzaren 29a.

Industria, Merkataritza era Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de mayo de 2001.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

## GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA

## Zk-3074

AGINDUA, 2001eko maiatzaren 4koa, Garraio eta Herri Lan sailburuarena, Bilboko Hiri Trenbidearen Zirkulazio eta Seinaleen Arautegia onartzeko dena.

Abenduaren 30eko 44/1975 Legearen bidez, Bizkaiko Garraio Partzuergoa sortu zen toki erakunde gisa, eta haren aginpideak dira Bilboko Hiri Trenbidearen azpiegitura obren finantzaketan parte hartzea eta, Legearen 5. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Partzuergoaren kapitalarekin eratuko den sozietate pribatu baten bidez trenbide horrek emango duen garraio zerbitzu publikoa zuzenean kudeatzea.

Abuztuaren 25eko 2488/1978 Dekretuaren bidez, bestetik, Estatuaren Administrazioak Eusko Kontseilu Nagusiari transferitu zizkion abenduaren 30eko 44/1975 Legean araututako aginpideak eta FEVEk ustiatutako Euskadiko trenbide zerbitzuak; Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuaren 10.32 artikuluaren bidez ordea, Autonomia Erkidegoari eman zitzaion ibilbidea erabat Erkidegoan egiten duten trenbideen gaineko aginpide esklusiboa, eta, aldi baterako xedapenetan bigarrenaren arabera, autonomia-aurreko garaian transferitutako aginpideak behin betiko onartutzat jo ziren.

Gerora, Jaurlaritzaren Kontseiluaren otsailaren 10eko 19/1987 Dekretuaren bidez eta Partzuergoaren Kontseilu Nagusiak 1985eko azaroaren 21ean izandako bilkuran aldeko txostena eman ondoren, Bilboko Hiri Trenbidearen 1. linea eraikitzeko plana aldatu eta handitzeko plana onartu zen, eta abenduaren 30eko 44/1975 Legearen 5. artikulua eta ekainaren 18ko

## DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

## N°-3074

ORDEN de 4 de mayo de 2001, del Consejero de Transportes y Obras Públicas, por la que se aprueba el Reglamento de Circulación y Señales del Ferrocarril Metropolitano de Bilbao.

Por Ley 44/1975, de 30 de diciembre, se creó el Consorcio de Transporte de Bizkaia, con naturaleza de ente local, y teniendo como competencias propias la participación en la financiación de las obras de infraestructura del Ferrocarril Metropolitano de Bilbao así como la gestión del servicio público de transporte a prestar por dicho ferrocarril, por el sistema de gestión directa mediante constitución de Sociedad Privada con capital del Consorcio, según lo dispuesto en el artículo 5.º de la citada Ley.

Por Decreto 2488/1978, de 25 de agosto se transfirieron de la Administración del Estado al Consejo General del País Vasco las competencias reguladas en la Ley 44/1975, de 30 de diciembre, así como los servicios ferroviarios explotados por FEVE en territorio del País Vasco, viéndose afectada posteriormente tal disposición por el Estatuto de Autonomía para el País Vasco que confirió a la Comunidad Autónoma en el artículo 10.32 la competencia exclusiva en materia de ferrocarriles que transcurran íntegros por la Comunidad Autónoma, quedando, conforme a la disposición transitoria segunda, asumidas con carácter definitivo las competencias transferidas en período preautonómico.

Posteriormente, por Decreto del Gobierno Vasco n.º 19/1987, de 10 de febrero, previo informe favorable emitido por el Consejo General del Consorcio en sesión de 21 de noviembre de 1985, se aprobó el Plan de Modificación y ampliación del Plan de Construcción de la línea I de la Red del Ferrocarril Metropolitano de Bilbao, y asimismo, en cumplimiento del artículo 5 de la